Jardun

# BERRIGARA

117 zenb.

1993, irailak 10

MARIAREN SIERBEK BERGARATIK ALDE EGINGO DUTE AURKI

SAN MARTIN JAIAK HASTEAR

**KIROLAK**

SASKIBALOI SAILAK BI TALDE BAKARRIK IZANGO DITU AURTEN




## GORLAKO IGOERA


ZAPATADENDAK

ALDASORO

• BERGARA •

HIL HONETAN GURE URTEBETETZEA DA ETA OSPATZEKO "URTEBETETZE" PREZIOAK JARRI DITUGU ZAPATA, POLTSA ETA LARRUZKO GAIETAN.

# LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

## HEZKUNTZ ESKAINTZA

### REM

(I. ZIKLOA  A, B eta D EREDUAN)

### BATXILERGOAK

TEKNIKOA (BTI)
ADMINISTRARITZA (BAG)
Biak D ereduan

MATRIKULAZIOA: Irailaren 7tik 13ra bitartean, 9:30etatik 12:30etara.

### LANBIDE HEZIKETA

(II. ZIKLOA)

MEKANIKA
ELEKTRIZITATEA
ADMINISTRARITZA
Hirurak A ereduan

### MEKANIKAGINTZA III MODULOA

D erduan

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

*CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak*

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Haurnaldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamentua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

GUZTI HAU ARRASATEN BERTAN, URRUTIRAGO JOAN GABE!!



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

**Argitaratzailea:**
*Jardun* Elkartea
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19
**Berrigara**
**Tfnoa. eta Faxa:** 76 03 97
**Babeslea:** Bergarako Udala.
**Erredakzioa**
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.
**Maketazioa:**
Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil.
**Publizitatea eta harpidetzak:**
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97
**Erredakzio-kontseilua:**
Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien.
**Kolaboratzaileak:** Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Maripi Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta A. M. Goenaga.
**Argazki laborategia:**
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.
**Komikia eta marrazkiak:** Josu Okina eta Antonio Arrillaga
**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).)
**Banaketa** : Txantxangorri Taldea.
**Copyright:**
BERRIGARA
**Tirada:** 3.300 ale.
**Lege gordailua:** SS 50/ 91
**ISSN:** 1130-6599
**BERRIGARA**k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

# GORLAKO IGOERA



Larunbat eta igandean jokatuko den Gorlako Kotxe Igoera aurkeztu zen asteazkenean Kultur Etxean. Bertan izan ziren, besteak beste, Victoriano Gallastegi alkatea, Bergara Racing taldeko kideak, hainbat gidari eta patrozinadore eta Espainiako Federazioko ordezkariak.

Guztiak bat etorri ziren proba honen antolaketaren garrantziarekin eta Bergarak bere moto eta kotxe gidarien bitartez motor munduan lortutako ospearekin.

Probak 7,5 milioi pta. inguruko aurrekontua izango du, Udalak 3 milioiko dirulaguntza emango duelarik. Lasterketa Espainiako Mendi Txapelketarako baliogarria izango da eta 33 partaideen artean Andres Vilariño, Pancho Egozkue, Luis Martinez eta Aitor Zabaleta bergararra izango dira.

**Astebukaeran jokatuko da gidari onenen partaidetzaz**

ITURRI ONETIK

## Taun-Taunen lan berria

Taun-Taunen txontxongilo taldeak lan berri baten prestaketa lanetan dihardu. Taun-Tauenekoek Eusko Jaurlaritzaren subentzio bat jaso dute urte amaiera baino lehen lan berri bat estreinatzeko baldintzarekin. Beren esanetan, *"amodioaren inguruko lan bat izango da oraingo hau. Oraindik ez dago idatzita eta inprobisazio prozesu baten ondorioz gidoia idatziko dugu"*. Bestalde, Austin FX-4 bideoa muntaia prozesuan dago oraindik..

ESAN DUTE

" Jendea sentsibilizatzeko, ondarea ikertu eta ezagutu egin behar dugu lehenengo; gero informazioa zabaldu eta hedatu, eskoletan sentsibilizatu etab.".

**JERARDO ELORTZA**
Irakaslea
ARRASATE PRESS

●

"Sortu nahi dugun elkartearen esparrua Deba Garaiko ondare artistiko, monumental eta historikoa da batez ere, alde etnografikoa eta bibliografikoa ahaztu barik. Gauza larregi igoal, baina arriskuan daudenak".

**JUAN MADARIAGA**
Irakaslea
ARRASATE PRESS

●

"Besteekin erlazionatzeko zailtasunak, asko eragin du nire obran, gauzetan gehiago fijatzera behartzen nau eta".

**JUAN BALENTZIAGA**
Artista
ARRASATE PRESSS

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

## Gauzak argitu nahian

Ariz-Ondo aldizkariak Bergara Kirol Elkarteari buruzko entrebista bat kaleratu zuen joan zen uztailean eta bertan Zuzendaritza berriak guk eramandako gestio ekonomikoa dudatan jartzen zuen. Entitatearen imajinari kalterik sortzeko asmorik gabe, baina geurea garbitu beharrez, aurreko Zuzendaritza Batzordeko kide izan ginenez, ondorengo argibideok eman nahi genituzke:

1.- Ez dugu inoiz Klubaren diru-konturik izkutatu Zuzendaritza Batzorde berriari erreleboa ematerakoan.

Orain artekoek egin duten bezala, aurreko zuzendaritzen testigua hartu eta duintasun eta ardurarik haundienarekin lan egiten ahalegindu gara, gestioaren erantzunkizuna asumituz eta gauzak ahal zen ondoen egiten saiatuz.

Egia da ez garela komunikabideen bidez klubaren egoera ekonomikoa pregonatzen ibili; ez diogu egin behar ez denik, bakar-bakarrik esaten dugu hori ez dela gure estiloa.

Eta oraindik gutxiago ibili izan gara gure aurreko zuzendaritzen lanaren zintzotasuna publikoki zalantzan jartzen, argitaratutakoaren arabera gurekin egin den bezala.

2.- Bazkideen Batzar Orokorra egin aurretik, zenbait aldiz geuk eskaturik, bilera bat egin genuen Zuzendaritza Batzorde berria osatu behar zutenekin, klubaren egoera azaltzeko asmoz. Bilera horretara ez zen diruzaina etorri bidaia batetara joana zelako baina bidaiatik itzultzean zenbait bilera egin zituen lehengo diruzainarekin eta berak argi eta garbi azaldu zizkion Klubaren kontu guztiak.

3.- Era berean, inolako obligaziorik izan ez arren, Bazkideen Batzar Orokorra egin aurretik, Klubaren Batzorde Erretoreari egoera patrimonialaren berri eman genion eta genituen prestamoak zeintzuk ziren eta zer egoeratan zeuden azaldu zitzaien. Prestamo horiek, guztiak, aurrez Bazkideen Batzar orokorrak onartuak zituen.

4.- Ezin da esan aurkeztu genuen Klubaren Egoera Balantzean irregulartasunak daudenik, balantze hori ez baita egin ez orain eta ez inoiz, Klubaren aktiboak (taberna, lokala, futbol zelaia, etab.) baloratu gabe daudelako.

5.- Klubaren benetako egoera hauxe da:

- Emaitzen kontua (92-93 denboraldiko sarrera-irteerak) Bazkideen Batzar Orokorrean aurkeztu genuena da.

- 5.600.000 pta.ko prestamoa dago, 1980ko maiatzaren 16an jasotakoa eta 1995eko maiatzaren 15erako ordaindu beharrekoa, tabernako konponketak egiteko eskatu zena. Gaur egunean ordaintzeke geratzen dena 1.060.000 pta. da.

- 2.000.000 pta.ko Kredito Kontua dago, berritu daitekeena, 1992ko azaroan irekitakoa. Bazkideen 92ko Batzar Orokorrean onartu zen eta tabernarako kamarak erosteko eta futbol zelaian, bulegoan, etab.etan zenbait konponketa egiteko eskatu zen.

Egoera honen berri garbi azaldu zen 1993ko ekainean egin zen 1992-93 denboraldiko Bazkideen Batzar Orokorrean eta, bestalde, esan beharra dago, azken 12 urteetan izan duen zorrik txikiena duela orain klubak.

6.- Ariz-Ondoko elkarrizketan aipatzen da hainbat faktura geratu zirela zorretan aurreko denboralditik baina ez da esaten bazeudela kobratzeko zeuden beste batzuk ere, 92-93 denboraldiari zegozkionak eta jakin badakigu dagoeneko Zuzendaritza berriak kobratu dituela 900.000 pta. inguru.

7.- Uste dugu komunikabideei deklarazioak egiten zaizkienean zehaztasunik haundienarekin egin behar direla, gauzak oso-osorik azalduz eta beren kontestutik atera gabe. Izan ere, ezin da esan, guztiz arbitrarioki esaten den moduan, «Klubak 4.000.000 pta.ko zorra» duela. Hori egia izateko gehitu beharra dago zor hori Klubaren inmobilizatua hobetu eta konpontzeko sortu dela eta, beraz, inmobilizatu horren balorea haunditu egin dela. Hori da benetako egia, sarritan sortu ohi diren gaizki ulertuak ebitatzeko jendeari esan behar zaiona.

8.- Argi ikusten denez, ez da inondik inora egia Ariz-Ondon agertutako beste hau ere, hau da Zuzendaritza Batzordeak denboraldi berriaren hasieran 4.000.000ko zorrari aurre egin behar diola aipatutako prestamo eta kreditoek beren epemugak eta ordaintzeko moduak dituztelako. Bestalde, esan dugu ordaintzeke zeuden fakturei aurre egiteko, bazeudela beste batzuk kobratzekoak eta horien ordainketa eta kobraketa fetxak egokitu litezke aurtengo denboraldiko gestioan ahalik eta eraginik txikiena izateko.

9.- Ez da gure asmoa inongo polemikatan sartzea eta, ondorioz, gaia itxita geratzen da gure aldetik, baina hala behar izanez gero, ez dugu inongo oztoporik, gure gestioa Batzorde Erretoreak aztertu eta bera izan dadin gauzak argitu eta erabakia emango duena.

***Alexander Garitano, Joxe Zabaleta eta Javier Burgos.***

## Tiiira ba!

Josu Okina





JENNIFER 8
Ostirala: 22.30.
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
Astelehena: 19.30.




ROBOCOP 3
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

## Zinea

▼▼ Azken urteotako zinegintzan *psikopatek* lan dexente izan dute. Hemen ere norbaitek Helena itsua (**Uma Thurman**) hil nahi du baina, nola ez, betiko heroia (**Andy Garcia** kasu honetan) jarriko da tartean.

▼▼ Filme baten arrakastak balio gutxiagoko beste batzuk ekartzen ditu. Hirugarren honetan Robocopek Detroiteko polizia utzi eta gaizkileekin elkartuko da. Hobe bere parean ez jartzea.



**Bertso jaialdia antolatu du JARDUN elkarteak larunbat honetarako, hilak 11. Bertan, Aitor Sarriegi, Estitxu Arozena (argazkian), Igor Elorza, Ion Maia, Iratxe Ibarra eta Jesus Mari Irazu bertsolari gazteek hartuko dute parte. Gaijartzaile, Aitor Sarasua arituko da. Jaialdia, esan bezala, bihar, gaueko 11etan Mariaren Lagundian.**

## Astebukaera

▼ **Pelota.** Ostiralean 22etan Frontoian: Bergara-Zumarraga (kadeteak), Bergara-Azpeitia (jubenilak, eskuz banaka) eta Bergara-Tolosa (jubenilak).

▼ **Bergararrak Pakearen Alde** elkarteak larunbatean Julio Iglesias Zamoraren askatasunaren alde Donostian egingo den manifestaldian parte hartzeko dei egin du.

▼ **Txirrindularitza.** 2. mailako afizionatuentzako San Martin Saria igandean. Bukaera 12ak aldera Ibargarain.

▼ **Futbola.** Bergara-Eskoriatza (preferente). Igandean 5etan Agorrosinen. Partidua hasi aurretik Muruamendiaraz eta Gutierrez pelotariei omenaldia.

## Farmaziak

▼ **Larunbata 11:** Puy.
▼ **Igandea 12:** Puy.
▼ **Astelehena 13:** Guallar.
▼ **Asteartea 14:** Mozos.
▼ **Asteazkena 15:** Puy.
▼ **Osteguna 16:** Guallar/Corcuera.
▼ **Ostirala 17:** Mozos/Amezua.

## Ogia

▼ **Igandea 13:** Bolintxo.
▼ **Osteguna 16:** Mizpildi.

MAKAILO ETXEA
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15

edertu
20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen
Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65 BERGARA

## Orkesta Sinfonikoa Huelvara

Bertako Diputazioak gonbidatuta, Bergarako Orkesta Sinfonikoak 5 kontzertu emango ditu Huelvan irailaren 17tik 24ra bitartean. Alfredo Gonzalez Chirlaquek zuzendutako taldea ostiralean aterako da Andaluzia aldera eta, Isla Cristinako Abesbatzaren laguntzaz, Punta Umbria (irailak 19), Trigueros (irailak 20), Aracena (irailak 21), Isla Cristina (irailak 21) eta oraindik zehaztu gabeko beste herri batetan (irailak 18) eskeiniko ditu kontzertuak. Guztietan programa bera izango da eta, amaieran, La misión eskeiniko dute (nagusiki lan horregatik gonbidatu dituzte). Guztira 70 lagun (63 musiko eta 7 laguntzaile) joango dira Huelvara eta bidaiaren aurrekontua 1.300.000 pta.koa da. Alfredo Glez. Chirlaque ez da San Martinetan izango eta beraz bere aita Miguelek ordezkatuko du jaietan Bandaren zuzendaritzan.

## Álkatearen deia

Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak dei egiten die herritarrei larunbat arratsaldean Donostian Julios Iglesias Zamoraren askatasunaren alde egingo den manifestazioan parte hartzeko.



Argazkian brintzadak Olaso Dorreko sukaldean eragindako ondorioak ikus daitezke.

# Olaso Dorrea brintzatu da

### *Udaletxea berrizteko lanen ondorioz*

Bergarako Udaletxea berrizteko lanen ondorioz brintzatu egin da Olaso Dorreko fatxada. Olaso Dorreko Sorrerakundeko kideek Bergarako Udalaren jokaera salatu dute, beren esanetan *"obrak hasi baino lehen hartu beharreko neurriak hartu ez zirelako. Josefak (Telesforo Monzonen alarguna)k Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamentura jo zuen uztailaren 17an hainbat leiho (tartean 2 lehio gotiko) eta ate blokeatuta geratu ondoren. Han obrak gelditzearen konbenientziarekin ados zeuden eta arkitektuak, berriz, markua ahula zela eta arotzari deitzeko erantzun zion, konponketa eurak ordainduko ziotela esanez".* Hilaren 12an langileek mikropiloteak sartzeari ekin zioten eta 17.a sartzerakoan ura irten eta ipar fatxadak 1,5 zm.tan behera egin eta 2 zm.tan okertu zen. Fundaziokoen ustez, *"obrak lehenago gelditu behar ziren. Gu Socotec enpresarengana jo genuen eta harriturik zeuden azterketa geoteknikoa eta zimentazio proiektua ez egiteagatik. Obren arduradunen erruz, errekuperaezineko galera bat egin da".*

Victoriano Gallastegiren hitzetan, *"beharrezko neurri sakonak hartu ziren eta horregatik uztaileko plenoan hasierako aurrekontuari beste 4 milioi gehitu genion mikropiloteen sistema garatzeko. Dorrea brintzatu arte Fundaziokoek ez ziguten inolako azterketarik aurkeztu. Orain beraiekin adostasun batera heltzea komeni da. Printzipioz artxibo munizipala ez da hor joango eta juezaren erabakiaren zai gaude alde biak".*

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

MINER
ardoak
Biltegiko telefonoa: 76 41 41

Ardo onak, jakina


96 urtez gure artean izan ondoren Mariaren Sierbek Bergaratik alde egingo dute.

# Sierben konbentua itxiko da

***Bokazio eta pertsonal faltagatik hala erabaki dute Erroman***

Mariaren Sierbek ez dute azkenik gure herrian jarraituko Sor Clotilde Cuevas sierben Zuzendari Nagusiak hala erabaki ondoren. Erromatik Victoriano Gallastegi alkateari bidalitako eskutitz batean, Sor Clotildek *"sentipen haundiz erabaki hori hartu beharrean"* aurkitu direla adierazten du, *"gaur egun ematen den bokazio faltaren problema eta pertsonal faltagatik konbentu guztiak zabalik mantentzea ezinezkoa"* zaielako. Era berean, Sor Clotildek ez du ahaztu nahi gure herriak beraiekiko izan duen portaera eta betirako Kongregazioaren historian Bergara kontutan izango dutela aipatzen du.

Gogoratu behar da uztailaren erdialdean Mariaren Sierbak gure herrian gelditzearen aldeko firma bilketa jarri zela martxan herriko hainbat dendatan. Guztira 4.345 firma jaso ziren baina ez da posible izan bailara mailan lan benetan aipagarria (gaixoak zaintzerako orduan esate baterako) egiten zuten monja hauek gure artean jarraitzea. Sor Clotildek herritarrengandik jasotako laguntza eskertu eta firmatzaileen eskakizuna ezin betetzeagatik pena haundia hartzen duela adierazten du.

Mariaren Sierbak orain 96 urte etorri ziren Bergarara eta denbora luze horretan bi tokitan egon dira: orain 25 urte ingurura arte Artekale 22an eta ordutik Alkabieta 1ean. Momentuan 5 monja dira bertan eta azken hilabetean beste bostek alde egin dute Portugaletera, Bilbora eta Segoviara. Hemen geratu direnak bere destinu berriaren zain daude.

## Eskolara buelta

Aranzadi Ikastolak jakin arazi duenez, Eskolaurrea (4-5 urte) eta O.H.O.ko lehen mailatik 5.era bitarteko ikasleak irailaren 13an hasiko dira goizez eta 20an goizez eta arratsaldez. O.H.O.ko 6., 7. eta 8. mailako ikasleak 20a hasiko dira egn osoz eta 3 urteko ikasleen gurasoei aurreegingo den bilera batan jakin araziko zaie.

## Kanpoko igerilekuak itxi

Kanpoko igerilekuak igandean itxi eta astelehenetik aurrera barrukoak egongo dira zabalik. Bestalde, sauna zerbitzua berriz ere zabaldu da astean 10etatik 1etara eta 3retatik 9etara. Larunbat goizetan ere zabalik egongo da.

## Asistentzia geriatrikoko ikastaroa

Mariaren Lagundiko ikastetxeak emakume langabetuei zuzendutako asistentzia geriatrikoko ikastaroa emango du urritik martxora bitarteko arratsaldetan. Gutxienez 2 urteko an esperientzia eta gehienez eskola graduatua izatea eskatzen da. Izena emateko epea astelehenean, irailaren 13an bukatzen da eta informazio gehiago bertako idazkaritzan jaso dezakezue.

Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Ford

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

# SAN MARTINAK

## ASTEAZKENA 15

**19:00:** **Buruhaundi, kiliki eta erraldoien kalejira**, Udal Txistulari Banda eta Kobok dultzaineroek alaituta. Ondoren bonba japoniarrak.

**20:30:** **Danborraden irteera:** bat San Martin ikastetxetik eta bestea. Tokiederretik Udal Musika Bandak eta Musika Eskolakoak lagunduta. Danborrada biak Seminario atarian bukatuko dira.



**Iaz San Martinetako danborradan estreinatu zen megafonia sistema (Azpeitiako danborradan erabili ohi dena), aurten baztertu eta bi danborrada antolatzea erabaki da. Biek ordu berean baina toki ezberdinetatik irtengo dira (Tokiederretik bat eta Matxiategitik bestea) eta Udal Musika Bandak lagunduko du bat eta Musika Eskolakoak bestea.**

**24:00:** Gaubela Orkestak alaitutako **Dantzaldia** San Martin Plazan.

## OSTEGUNA 16

**08:45:** **Diana** Udal Txistulari Bandarekin.

**08:45:** **Sokamuturra** herriko kaleetan zehar.

**11:00:** **Meza Nagusia** San Pedro elizan. Udal korporazioa joango da Udal Musika Banda eta Txistulari Bandak lagunduta.

**12:00:** **Udal Musika Bandaren kalejira**.

**12:30:** **Udal Musika Bandaren kontzertua** Alfredo Gonzalez Chirlaqueren zuzendaritzapean San Martin Plazan. Egitaraua:

- San Martin (Martxa). Miguel Gz. Bastida.
- La gazza ladra (Obertura). G. Rossini.
- Robbin-Hood (Soinu banda). M. Karmen.
- San Martin (Euskal irudiak). M. Gz. Bastida.

**19:00:** **Haurren danborrada**, Musika Eskolako Bandak lagunduta.

**22:00:** **Suzko erroberak** San Martin ikastetxeko patioan.

**Piroteknia Zaragozanak prestatutako suziri eta suzko erroberekin gozatzeko aukera izango dugu ostegunean.**



**23:00:** **Dantzaldia** Lisker taldearekin San Martin plazan.


SAN MARTIN JAIAK

DANBORRADAK, SUZKO ERROBERAK, BARAZKI ETA GAZTA LEHIAKETA, BERTSOLARIAK, DANTZALDIAK, KIROL FROGAK, HITZALDIA...

*Ondo pasa!!*

KULTURA ZERBITZUA

## OSTIRALA 17

**19:00:** **Justo Garate Arriola** bergarar jakintsuaren autobiografia eta idazkiak jasotzen dituen "Un critico en las Quimbambas. Autobiografia y escritos" **liburuaren aurkezpena** Kultur Etxean.
Victoriano Gallastegi alkateak, Jose Angel Ascunce Deustoko Unibertsitatea-EUTGko Gaztelania Literaturako katedratikoak eta Elias Amezaga idazleak egingo dute aurkezpena.

## LARUNBATA 18

**09:30:** Deba Garai eta Beheko **barazki, fruitu, lora eta gazten lehiaketa,** Seminarioko patioan.

**13:00:** **Gorrotxategi** eta **Egileor** bertsolarien saioa Seminarioko partioan. Ondoren lehiaketako sari banaketa.

**16:00:** **Haurrentzako jokuak** Seminarioko patioan eta ondoren, **bonba japoniarrak.**

**17:00:** I. Azeri ehiza. **Larrialdian irratizko aurkikuntza saioa** Surra Irratizaleen Elkartearen eskutik.

**18:00:** IV. San Martin **Herri Krossa** herriko kaleetatik zehar.

**18:30:** **Moises Azpiazuren oroimenaldia**. Bikoteen Dantza Askatuko IX. txapelketa, Seminarioko patioan.

**19:00:** Haurrentzako **Globo aerostatikoa** Ipintzako zelaian

# XAKE ASTEA

**ASTELEHENA 13:**
Hitzaldia: "El ajedrez, cultura y deporte".
F. Izeta, M. Sebastian, Y. Esturo, M.A. Muela eta M. Zubia. 18:00. Kultur Etxea.

**ASTEARTEA 14:**
Aldibereko partidak: Martin Arriaran eta Andres Díez Timofeva aurrez-aurre.
18:00. San Martin plaza.

**ASTEAZKENA 15:**
Xake azkarreko maratoia: 10 orduz eta zaletu guztientzat.
18:00. Bergarako Xake Taldearen egoitza.

**OSTEGUNA 16:**
Eskolarteko xake lehiaketa.
11:00. Xake taldearen egoitzan.

**OSTIRALA 17:**
• Hitzaldia: "Leyes del ajedrez e interpretaciones reglamentarias y desarrollo de juego". M.A. Muela eta L. Iruretagoyena. 18:00. Kultur Etxea.
• Deba bailarako taldekako finala. 19:00.

**LARUNBATA 18:**
I. Bergara Hiria Xake Txapelketa.
10:00. Mariaren Lagundiko Aretoa.

**IGANDEA 19:**
• Bilera teknikoa: "Los monitores de ajedrez". N. Lococo, A. Albaina, J. Ezpeleta eta A. Ablanedo. 09:00.
• Bergara Hiria Xake Txapelketa Irekia. 10:00.
• Bukaera ekitaldia eta sari banaketa. 19:00.

ETXEPARE-BILINTX
LIBURUDENDA
*Liburuak eta diskoak*
Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

# Bestetan baino jende gehiago aurtengo abuztuan

● *Abuztuan asko izan dira opor barik geratu direnak, eta kanpora irten direnak oporraldi motzagoak izan dituzte.*

● *Iñaki Arietaleanizbeaskoa, Jabi Lazkano eta Jose Ramon Aiastui bergararrak atxilotu zituen Ertzaintzak ETAko extorsio sarea osatzen zutelaren akusaziopean abuztuaren 6an.*

● *Iosune Linazisoro, Udal Kirol Zerbitzuko zuzendaria eta Kutxu Otamendi pintoreak kotxe eta moto istripuak jasan zituzten hilaren 9 eta 5ean.*

● *Kloro ihesketa batek alerta gorrian jarri zituen bergararrak abuztuaren 8an.*

## Zer egin duzu oporretan?



**German Azkarate 29 urte, langilea**

Kanpoan izan naiz, Tunezen. Aurten opor laburragoak izan ditut tailerrian erregulazioan gaudelako.



**Isabel Mujika 60, etxekoandrea**

15 egun Donostian egin ditugu eta gero zelan mutikoak ikasi behar zuen ba hemen. Krisia? Nabari da, bai.



**Leire Agirrezabal 20, langilea**

Tabernan lanean. Jendea egon da baina kontsumitu gutxi. Bestetan beste giro bat izan da.



**Iñigo Unamuno 31, langilea**

Abuztuan egun gehienak hemen eta 12 egunerako irten. Ez dut posibilitaterik izan gehiago hartzeko.

## Jaiotakoak

- Maitane Garate Maestro. VII-13.
- Ismene Goiti Aiastui. VII-14.
- Leire Azkarraga-Urizar Urzelai. VII-17.
- Ion Montiel Linzoain. VII-26.
- Amaia Garitano Agirreolea. VII-28.
- Jone Aranburu Guridi. VIII-2.
- Markel Sáez de Jauregi González. VIII-2.
- Luis Carlos Alonso Centeno. VIII-13.
- Xabier Eguren Alonso. VIII-14.
- Eneritz Rueda Gutiérrez. VIII-22.
- Julen De Dios Cabo. VIII-25.
- Eneko González Valle. VIII-26.
- Estefania Moldón Ballesteros. VIII-27.
- Olatz Ugalde Gonzalez. VIII-27.
- Aritz Díaz Romaratezabala. VIII-28.
- Irene Markiegi Novoa. VIII-29.

## Hildakoak

- Pedro Azkarate-Askasua Eguren. VII-29, 63 urte.
- Nere Leninsoro Hernandez. VII-30. 10 hilabete.
- Benita Alberdi Dorronsoro. VIII-1, 87 urte.
- Claudio De Castro Mata. VIII-1, 92.
- Martina Mazmela. VIII-1.
- Maria Fernandez Regatillo De La Lastra. VIII-3.
- Jose Alberdi. VIII-3, 76.
- Blas Francisco Imaz Bastarrika. VIII-4, 72.
- Felisa Larrad Soriano. VIII-10, 86.
- Rufina Arando Telleria. VIII-14, 86.
- Matilde Plazaola Barrenetxea-Arando. VIII-17, 90.
- Rosario Agirrezabal Arrese. VIII-21, 90.
- Francisco Javier Astaburuaga Alberas. VIII-29, 41 urte.

Aurtengo abuztuan beste urte batzuetan baino jende gehiago geratu omen da herrian. Antza denez krisi ekonomikoak bere eragina izan du.

Abuztuan lanean jardun duten dendari, udaltzain eta beste herritar batzuekin egoteko aukera izan du BERRIGARAk eta euren iritzien arabera bestetan baino mugimendu haundiagoa izan da kalean. Egin duen eguraldi kaskarrak ere bere eragina izan du, oporretara etxetik kanpo joan ez direnak kostaldera edota mendira irteerak egiteko aukera haundirik izan ez dutelarik.

Dendarien esanetan lan dexente izan dute aurtengo udan. EROSKi supermerkatuko eta herriko okindegi, gozotegi, taberna edota bideo klubetako arduradunei, orokorrean, ondo joan zaizkie gauzak. Larrañaga gozotegiko Rosaritoren esanetan, *"aurten jende asko ibili da atzera eta aurrera. Bertakoez gain, kanpoko jende ugari ibili da. Kontutan hartu behar da eguraldiak ez duela asko lagundu eta kostaldetik barrukaldera, Arantzazura esate baterako, irteerak egin dituztenak asko izan dira. Hemen igarri dugu hori"*.

Udaltzainak eta herrian geratu direnak bat datoz aurten kalean kotxea aparkatzeko toki gutxi izan dela esaterakoan. Beste urte batzuetan kaleak erdi hutsik ikus bazitekeen ere, aurten kotxez beteta aurkitu dira.

Bestalde, Ertzaintzak emandako datuen arabera, Bergara inguruko errepideetan 12 istripu izan dira abuztuan zehar. Horietako batean Josune Linazisoro Udal Kirol Zerbitzuko zuzendariak zauri larriak jasan zituen. Beste istripuetan hiru lagun arinki zaurituak gertatu ziren.

Lapurretei dagokienez, jakina da abuztuan zehar ugaldu egiten direla. Ertzaintzak 6 pertsona atxilotu ditu herriko etxe edota denda eta lantegietan lapurretan egiteagatik.

Igaro kosmetika dendan eta Bergara Marmolerian eta Azoka plazan lapurretak izan dira. Lehenengoan kartera bat eta kolonia boteilatxo batzuk ostu zituen emakumezko batek. Marmolerian, berriz, dirua eta txeke batzuk (700.000 pzta. inguru) arrapatu zituen gizonezko batek. Azoka plazan, azkenik, 30.000 pzta. ostu zituen ezezagun batek, errekaldeko atetik sartu eta gero. Horrez gain azokako postuetan zenbait kalte material eragin zituen (pertsianetan, e.a.etan)

## TXINPARTAK

**16-7:** Mongatxurrak eskuratu zuen Ipintzako Nagusiendako II. Futbol Txapelketa Amilotxi 2-0 irabaziz.

**23-7:** Herriko hainbat kolektibo plazan elkartu zen, zoruan egin zituzten muralen bidez euren nahiak eta kezkak azaldu eta bide batez, dierazpen askatasuna aldarrikatzeko.

**24-7:** Herri Olinpiadei amaiera emateko bazkari herrikoia egin zuten plazan 100 bat lagunek. Bazkalostean Play-back saioa eta beste joku batzu burutu ziren.

**26-7:** 500 bat bergararrek hartu zuten parte Arantzazura peregrinazioan.

**7-15:** La Duda talde bergararrak Donostiako Pop-rock lehiaketako azken fasean parte hartu zuen Ondarretan kontzertua emanez.




**Uztailaren 30etik 31era bitarteko gauean Manu Muniategi pintoreak margotutako plazako kuadroek erasoa jaso zuten.**

## Alcalako espetxean ETAko estorsio sarea osatzen zutelaren akusaziopean detenitutako bergararrak

Abuztuaren 6an Ertzantzak inguruko industrigizonei ETAren izenean dirua exijitzeaz arduratzen zen extorsio sare bat desmantelatu zuen. Horren ondorioz, Iñaki Arietaleanibeaskoa (25 urte), Jabier Lazkano (31) eta Jose Ramon Aiastui (25) bergararrak atxilotu zituzten, beste hiru lagunekin batera, tartean Luis Etxeberria (30 urte) zaldibartarra eta Antzuolako DYAko kidea.

Gau hartan hainbat banketxetan pintadak egin ziren eta hurrengo egunean asanblada bat izan zen Plazan, ondoren atxiloketen aurkako manifestaldi bat burutu zelarik herriko kaleetatik.

Ertzaintzak atxilotu zituen hiru bergararrak Alcalako espetxean dira eta Luis Etxeberria zaldibitarra, berriz, Carabanchelen.

Guztiak epaiketaren zain dira.

## Iosune Linazisororen osasun egoerak hobera egin duen bitartean Kutxu Otamendik larri jarraitzen du

Iosune Linazisoro Udal Kirol Zerbitzuko zuzendariak eta Kutxu Otamendi margolariak istripu larriak izan dituzte abuztuan.

Iosune Linazisorok abuztuaren 9an, goizean, Bergarara lanera zetorrela Antzuolan istripua izan eta Donostiako Erresidentziara eraman zuten zauri larriekin. Gibelean ebakuntza bat jasan behar izan zuen eta bi hanketan ere igeltsua jarri zioten. Orkatila bat nahiko minduta dauka oraindik eta Erresidentzian ingresaturik jarraitzen du. Astelehenean bertan erreabilitaziñoarekin hastekoa zen eta familiakoek eta lagunek adierazi digutenez animo aldetik oso ondo ikusten zaio.

Gaur egun Hondarribian bizi den Kutxu Otamendik, berriz, moto istripua izan zuen abuztuaren 5ean Donostian lanera zihoala eta horren ondorioz zauri oso larriak dauzka. Orain gutxi 5. zerbikaletik (lepotik) operatu dute eta Erresidentziako UVIn jarraitzen du, familiakoek prozesua luzerako doala adierazi digutelarik. Biei ere errekuperazio on bat eta laister gure artean izatea opa diegu.



Kutxu Otamendi



Iosune Linazisoro



Argazkian, Bergarako talde nagusiaren aurpegi berriak.

## Bergara Hiria Txapelketan itxura ona erakutsi ondoren, berdinketaz hasi du Liga Bergarako futbol taldeak

Pasa den abuztuaren 26an Bergara K.E.ko futbol ekipo nagusiaren aurkezpena izan zen Agorrosinen. Hastear dagoen 93-94 denboraldirako, Iñigo Zaitegik zuzentzen duen taldean aurpegi berriak ikus daitezke: ezkerretik eskumara, goian: Ibon Larrañaga, Alatz Larrañaga, Osoro eta Alberto. Behean, Roberto Irazabal, Juanjo Curado´eta Javi Perez entrenatzailea. Zaletuen aurreko aukezpenean, Bergara Hiria trofeoan, aurrefinalean Aloña Mendiri penaltietan nagusitu ondoren, finalean bergararrek 1 eta 0eko emaitzaz galdu zuten Durangoren aurka. Txapelketako jokalaririk onena Ibon Larrañaga izendatu zuten. Ofizialki pasa den larunbatean jarri ziren martxan gure mutilak. Bergarak eta Rotetak huts eta huts berdindu zuten Donostian eta astebukaeran Eskoriatzaren bisita izango dute bergararrek.

## Osintxuko Kofraixak, abuztuko azken jaiak

Abuztuan jai pilo bat izaten dira inguruko herrietan eta, San Martinen atarian, Osintxuko Kofraixak ere jende dexente erakartzen dute. Oporretatik bueltan oraindik ere jendeak juergarako gogoa izaten du eta Osintxu bidai askoren azken etapa bihurtu da aurten ere. Beti bezala, giro bikaina eta, ohiturak agintzen duen bezala, txekor hilketa ezin falta. Gainera aurten errekor eta guzti; Iñaki Labakak txahala hil eta garbitu ondoren, Jose Mari Jauregik ekarritako 13 hilabeteko txahalak kanalean 292 kilo pisatu zuen. Ondoren, igande goizean 600 litro salda eta Meza Nagusiaren ondoren hildako txekorraren haragiarekin egindako ogitartekoak banatu ziren bildutakoen artean. Horrez aparte, proba ezberdinetan honako emaitza hauek izan ziren; Juan Martin Elexpuruk duatloia irabazi zuen, Peruk mutikoentzako krosa eta autokrosean, berriz, «Aisker» izan zen lehena, «Iturri», Izaskun eta Belokiren aurretik. Era berean, Juan Marrtin Elexpuru gai-jartzaile aritu zelarik, bertso jaialdia ere arrakastatsua suertatu zen Mañukorta, Jon Maia, Estitxu Arozena, Jose Agirre eta Jose Luis Gorrotxategiren partaidetzarekin. Azkenik, jaietan egindako zozketan 309 zenbakia izan zen saritua. Boletoaren jabeak Mallorcara bi pertsonendako bidaia bat eskuratuko du.



## Bi bergarar intoxikaturik kloro ihesa baten ondorioz

Bi bergararrek zauri arinak jasan zituzten abuztuaren 8an Txarako ur depositoan kloro ihes izan ondoren. Txara baserri inguruan ere zenbait kalte material eragin zituen ihesak, inguruko zelaiak eta hainbat zuhaitz erre zirelarik.

Txarako depositoaren mantenimenduaz arduratzen diren udal teknikoek adierazi zutenex, zulaturik zegoen bonbona batetatik hamar bat litro kloro irten ziren eta deposito ondoan dagoen estolda batetik filtratu eta anbulategi inguruko beste estolda batetatik irten zen.

Babes zibileko teknikoek anbulategiko inguruak ureztatu ziuzten airean zegoen kloroa desegiteko.



## Asier Garitano Cartagenara

Asier Garitano bergarar futbolari gazteak Cartagenarekin fitxatu zuen abuztuaren 9an. 2. A mailako Bilbao Athletic eta Eibarren jokatu ondoren, 23 urteko aurrelari honek 2. B mailako Cartagena taldean arituko da 93-94 denboraldian. Momentuz gustora dago Murtzia aldean eta esan digunez, Gabonak arte ezin izango du etorri. Asierrekin batera Sagardui erandiotarra ere han da eta biak jokatzen ari dira. Momentuz gauzak ez dira uste bezain ondo hasi, kopatik kanporatu eta igandean, ligako lehen partiduan, 1 eta 0 galdu baitzuten Gramaneten aurka. Hala ere, Asierren esanetan, "talde nahiko ona dugu eta nik uste dut igoera ligillan sartuko garela. Iaz puntu bategatik ez ziren sartu eta ea aurten suerte gehitxoago izaten dugun...". Asteleheneko egunkarietan Cartagenaren martxa jarraitu beharko dugu hemendik aurrera...

# SAN JUAN

## Auzo elkartea



Elkarteko bazkideetariko batzu.

Gaur egun San Juan elkartea dagoen tokian, lehen eskola zaharra zegoen. Beranduago, auzoan sakristau zegoena bizi izan zen bigarren pisuan. Sakristaua han bizi zela eta, auzotarren artean tira-bira batzuk egon ziren, batzuk ez bait zeuden ados etxe hura sakristauak erabiltzearekin. Egokiago iruditzen zitzaien sakristautza lanak auzotarrek egin eta lokal haietan auzoko elkartea egitea. Eta hala egin zen. Horrela, 1982. eko maiatzaren 9an ireki zituen San Juan elkarteak bere ateak.

Bertako bazkide diren Juan Mari, Andoni, Juan Karlos eta Jesusek esan diguten bezala, elkarte hontan 46 bazkide daude. Emakumeak ere onartuak dira bazkide bezala. Hiru dira San Juan elkartean dauden emakumezko bazkideak. Bazkide guzti hauen batazbesteko adina 50-55 urte inguruan dabil.

Aipatzeko datua da San Juan elkartean dauden bazkide guztiak auzokoak direla, edo bestela, auzokoren batekin ezkondutakoak.

San Juan elkartean kontsumoarekin ateratzen duten urteko kaja 360.000 pzta inguruan ibiltzen da. Falta kontutan, orain arte nahiko ondo ibili dira, % 1.5 inguruko faltekin. Baina badirudi, azken bi hilabetetan gauzak nahiko okertu direla. Dena dela, gauza bere onera etorriko delakoan daude, eta tira.

Elkarte hontan ez dago izendatutako presidenterik. Urtero seiko talde batek egiten ditu juntako lanak, eta denen artean betetzen dituzte lan denak.

Dazkaten proiektuetaz galdetzean, barre egin digute. Oraingo proiektua, dauzkaten zorrak ordaintzea omen da. Hortaz gain, ez daukate aldaketa handirik egiteko asmorik. Hormak margotu eta horrelakoak.

Hortaz gain, auzoko proiektu bat ere elkartetik ari dira bultzatu nahian: ea udaletxeak elkarte eta eliz aurreko plaza konpontzen duen.

San Juan elkarteak auzoko jaietan ere bere partea jartzen du auzoari jai giro pixkat emanez.

Sukalderako trebetasuna dutenak ere badira elkarte hontan. Bertan dugu Bergarako jaietako txapelketan bigarren saria atera zuen Umerez ere.

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1982.eko maiatzak 9.
**BAZKIDEAK:** 46.
**HELBIDEA:** San Juan auzoa.
**PRESIDENTEA:** Ez dago.
**ELKARTEAREN EGUNA:** Maiatzeko azken eguna.
**URTEKO KUOTA:** 8.000 pzta.

***Ainhoa Lete***


# ESKUALDEKO PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA
## (Psikologia gabinetea. BERGARA)

**KONTSULTA, DIAGNOSTIKOA, TRATAMENDUA (haur, gaztetxo eta helduentzako)**

**LOGOPEDIA-FONIATRIA**
- **AHOTS, HIZKETA eta LENGOAIA ZAILTASUNEN BIRGAITZEA**
- **DISFONIAK. Birgaitze eta prebentzioa: noduloak, polipoak, edemak, ahotsa behartzearen ondorioak, fonazio eta arnasketa kaltetuak.**
- **DISLALIAK: ahoskatze arazoak.**
- **DISLEXIAK**
- **TOTELTASUNAK**
- **AFASIEN eboluzio eta tratamendua: kalte kraneoenzefalikoen ondorioak, burmuin zainen gaitzak, enzefalitiak.**
- **DISLALIAK: ahoskatze arazoak**

**PSIKOMOTRIZITATEA**
**ESKOLA ATZERAPENERAKO LAGUNTZAK**
**PSIKOLOGIA KLINIKOA**

**Herri Lagunak (Aranzadi Ikastolako patiotik sarrera). ☎ 76 14 80.**
**Koordinatzailea: Jose Luis Irazabal.**

# GORLAKO IGOERA

## Autozaleekin zita

Egia esan Gorlako Igoeraren edizio hau Espainiako txapelketaren barruan izatea garrantzitsua da, eta bertan Europako txapeldun bat eta Espainiako bat izango ditugu eta Jaizkibelekin batera goi mailako proba izango da Gorlakoa. Honek bizitza motza izan du bere historiala bezela, baina hor da onenen artean eta guzti hori antolatzaile amateurrez osatutako talde baten lanari esker afizio hutsez, diru motibaziorik gabe, txalogarria. Erronka handia da, egindako lanaren parekoa. Vilariño, Egozkue, Zabaleta eta abar luzetxoa duten guztia emanez arituko dira Gorlako maldetan. Eta ez horiek bakarrik ilusioak eta zaletasunak bultzaturik aritzen diren beste zenbait pilotu ere hor izango ditugu. Rallyetan, zirkuitoetan eta mendi igoeratan Bergararen izen propioa harro zabaldu dutenen lanaren azken lorpena da aurtengo Gorlako Igoera Espainiako txapelketarako baliagarri izatea. Oraindik gogoratzen dut iazko denboraldia amaitu zenean Udalak herriko txapeldunei egindako omenaldia. Egun hartan Gorlako Igoera maila gorenenetara bultzatzearen erabakiak indar handia hartu zuen. Hilabete gutxi pasa dira eta hor da bertakoen lanaren fruitua. Orain, goi mailako kirol ikuskizun honetan gozatzea eta gauzak behar bezela amaitzea baino besterik ez da falta, Gorlako Igoera, futbolean bezala, hasieratik izango da titular Espainiako Txapelketan. Hala bedi, motor kirol zale guztien mesederako izango baita.

**GERARDO PUENTE.**
**ETBko kirol saileko motor arduraduna.**

## *Parteartzaileak*

| GIDARIA | AUTOA | MAILA |
|---|---|---|
| **1. Andres Vilariño Esnaola.** | Lola BMW. | C-3 17. |
| **2. Pantxo Egozkue De los Santos.** | Osella BMW. | C-3 17. |
| **3. Luis Martinez Fuertes.** | Osella BMW. | C-3 17. |
| **4. Aitor Zabaleta Arrue.** | Lola BMW. | C-3 17. |
| **5. Antonio Peracho.** | Simbol BMW. | C-3 16. |
| **6. Carlos Egozkue De los Santos.** | Osella BMW. | C-3 16. |
| **7. Xabier Riera Vilarrasa.** | BMW-M3. | A. |
| **8. David Rodriguez Zamora.** | BMW-M3. | A. |
| **9. Gerard De la Casa.** | BMW-M3. | A. |
| **10. Jesus Mª Arzalluz Zubeldia.** | Opel Corsa. | A. |
| **11. Francisco Javier Ortuzar.** | Opel Corsa GSI. | A. |
| **12. Yosu Beitia Aspe.** | Opel Corsa. | A. |
| **13. Antonio Muñoz Sanchez.** | Citroen AX GT. | A. |
| **14. Alberto De Lucas Aranzabal.** | Citroen AX Sport. | A. |
| **15. Javier Mier Higuera.** | Seat Marbella. | A. |
| **16. Angel Castro De las Heras.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **17. Fernando Medina Ocina.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **18. Fernando Navarrete Perdices.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **19. Francisco Rastrollo Mendez.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **20. Alfredo Del Aguila.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **21. Juan Olle.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **22. Jose Luis Caneira Gonzalez.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **23. Julio Garcia Martinez.** | Citroen AX. | A 1/2. |
| **24. Antonio Castro De las Heras.** | Ford Sierra | N. |
| **25. Jesus Mª Santamaria Lopez.** | Cosworth. | N. |
| **26. Enrike Barrenetxea Arando.** | Ford Sierra | N. |
| **27. Aitor Barinaga.** | Cosworth. | N. |
| **28. Jose Emilio Alvarez Atrio.** | R-5 GT Turbo. | N. |
| **29. Gerardo San Jose Calderon.** | Clio Williams. | N. |
| **30. Juan Luis Elorrieta.** | Clio 16V. | N. |
| **31. Juan Garcia Rodriguez.** | R-5 GT Turbo. | N. |
| **32. Ion Aranburu Aizpuru.** | Citroen AX GT. | N. |
| **33. Joseba Aizpuru Urdalleta.** | R-5 GT Turbo. | N. |


IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.
Martxan jarri ekipamendurik apartena.
Martxan jarri segurtasun neurri erosoenak.
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.



**300.000** Pezeta*
BITARTEKO DESKONTUA

*Stock-ean dauden autoentzako promozioa hilabete honetan.

OPEL

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.

**TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
**BERGARA** (Guipuzkoa)
Erakusketa **ARRASATEn**:
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

# GORLAKO IGOERA

**Sortu berri den Bergara Racing taldeak ardura haundia hartu du bere gain Gorlako igoeraren antolaketarekin. Guzti horri buruz hitz egiteko Imanol Larrañaga, taldeko partaidearekin solasalditxo bat izan dugu.**

## *Imanol Larrañaga*

### ANTOLAKETA BATZORDEKOA

## "Bergara Racing taldeak herriko kotxe zaletuen bilgune izan nahi du"



**- Duela gutxi Bergara Racing Taldea sortu duzue. Nola eta zergatik?**

- 11 ezagun karrerak ikusteko edo kotxeei buruz hitz egiteko elkartzen ginen. Baina denbora pasa ondoren pentsatu genuen guk karrerak antolatzea eta orain dela 5 urte lau igoera antolatu genituen, baina iaz Federazioarekin izandako arazo batzuen ondorioz ezin izan genuen lasterketarik antolatu. Aurten kotxeen Gorlako mendi igoera antolatzeko ideia iaz herriko moto eta kotxe gidariei egin genien omenaldian sortu zen. Omenaldi hartan jende garrantzitsua etorri zen eta bertan zeuden Alkatea eta Zinegotzi bat konturatu ziren herritik kanpo Bergarako gidariak ezagunak eta garrantzitsuak direla eta hori ikusirik Udalak erronka bat bota zigun, guk lasterketa antolatu eta beraiek aurrekontuaren erdia ordainduko zigutela, eta orain hemen gaude.

**- Zuen klubean edonork parte hartu al dezake?**

- Bai, guk ateak zabalik ditugu eta gure asmoa da bere aldetik dabilen jendea gure klubean batzea, eta horretarako Avenida kafetegian Pablo Irizarrekin kontaktuan jar daiteke. Aurtengorako asmo berriak ditugu, lehenik eta behin egutegi bat prestatu dugu eta motorrarekin zerikusirik duten atal ezberdinak banatu egingo ditugu, horrela jendeak gustoko dituen gauza ezberdinak ikutuko dituelarik.

**- Bihartik aurrera Gorlan jokatuko den lasterketa antolatzeak lan eta esfortzu ikaragarria eskatuko du...**

-Bai, alde batetik diru mailan Euskadiko federazioaren eta Espainiako federazioaren artean burrukan dabiltza eta hemen lasterketa bat antolatzeko orduan segurua egiteagatik gehiago ordaindu be-


**BERGARA**
**Karrozeria**
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

**TXURRUKA AUTOAK**
PEUGEOT TALBOT zerbitzua
Aitziturri - San Lorentzo (gasolindegiaren ondoan)
☎ 76 09 30 BERGARA
PEUGEOT

har dugu eta baimenak lortzeko ere federazioari 2 miloi t'erdi ordaindu behar izan diogu eta gauza bera gertatu da baskularekin guk gurea daukagu, baina nola federazioak ematen digun proba antolatzeko baimena berari ordaindu behar izan diogu dirua eta berdin gertatu da asistentzia sanitarioko kotxearekin. Guztira lasterketaren aurrekontua 8 miloitara joan zaigu. Jende aldetik ere lan asko egiten ari gara eta guztira 50 pertsona inguru bildu gara lasterketa antolatzeko.

**- Lasterketan espektakuloa zihurtaturik dago?**

- Nik uste dut baietz. Kontutan izan behar da, Espainiako txapelketa dela eta estatuko kotxe onenak ikusiko ditugu. Gainera aurten zortea izan dugu, zeren Europako txapelketan Egozkuek badirudi Vilariñoren azken lau urteetako nagusitasuna apurtuko duela eta hori ikusirik, Gorlan bietatik onena zein den erakutsi nahiko dute.

Baina aurreko bietaz gain, Aitor Zabaleta bergararra ere kontutan hartzeko gizona da. Beraz partaidetza ikusirik espektakulu bikaina ikusteko aukera dago, eta Gorlara joango denak egun ezin hobea pasatzeko beta du.

# AITOR ZABALETA

**Aurtengo Gorlako kotxe igoera Espainiako txapelketaren barruan dago eta horrek esan nahi du gidari hobeak etorriko direla, hori kontutan izan da, ze aukera dituzu lasterketan?**

- Alde batetik aukera asko ikusten ditut, baina bestetik gutxi. Ni herrikoa izanik Gorlarako igoera ongi ezagutzen dut eta horrek nire aukerak gehitzen ditu. Baina kotxe aldetik nire arerioek, Egozkuek, Vilariñok eta Martinezek, alegia, zaldi gehiago dituzte eta horrek nire aukerak murrizten ditu, zeren nik beraien denbora berdinak egiteko gehiago arriskatu behar baitut.

**- Zeintzu izango dira zure areriorik nagusienak Gorlan garaipena lortzeko orduan?**

- Vilariño, Martinez eta Egozkue, azken hau, gainera aurtengo Espainiako txapelketan lehen postuan dago. Espainiako txapelketan momentuan 2. postuan nago eta oso garrantzitsua izango litzateke emaitza on bat lortzea Espainiako txapelketa eskuratzeko.

**- Ze ezaugarri ditu Gorlarako zirkuitoak?**

- Niretzako eta beste askorentzako, kotxe mendi igoeretan aurki daitekeen zirkuitorik onenetarikoa da. Zirkuitoan denetarik aurki dezakegu, kurba motelak ezker-eskuinera, "paellak"... nire ustez proba guztiak horrelakoak izan beharko lirateke.

## *"Espainiako Txapelketa eskuratzeko, Gorlan postu ona egin beharra daukat"*

**30 urte.**
**1981a geroztik Mendi kotxe igoeretan.**
**PALMARESA: 4 aldiz Euskadiko txapelduna eta 3 aldiz Espainiako txapeldun ordea.**
**KOTXEA: Lola Lorica. 365 zaldi. 640 kg.**
**Aurten Espainiako txapelketan lortutako emaitzak: Castellonen 3., Jaizkibelen ez zuen amaitu, Ciudad Realen 2.**
**Gelditzen zaizkion probak: urriaren 10ean Fiton (Asturias), urriaren 17an Santo Emiliano (Asturias), azaroaren 15ean Coll D'Rates (Alicante), azaroaren 25ean Puig Mayor (Palma de Mallorca).**




ION AUTOAK
Bisita gaitzazu eta ezagutu ezazu
XANTIA berria
Uriarte 10 BERGARA ☎ 76 47 49 / 76 47 73

# GORLAKO IGOERA

## ANDRES VILARIÑO

### "Gorlan ez dut gehiegi arriskatuko"



**Orain arte, Europako lau txapelketa irabazi dituzu jarraian, baina badirudi aurtengoan irabazteko zailtasun gehiago izango dituzula...**

- Bai, aurten arazo asko izan ditut kotxearekin eta badirudi aitzakiak direla, baina benetakoak dira. Mundu guztiak daki orain arte Europako txapelketan lau lasterketa jokatu direla eta lau marka hautsi ditut, baina bakarrik lau lasterketa irabazi ditut. Kotxearekin arazoak izan ditut eta ezin izan dut garaipenik lortu.

**- Nola ikusten duzu bihar bertan hasiko den VII. Gorlara Kotxe igoera?**

- Nik uste dut ezin hobea dela, horrelako lasterketa antolatzea Bergaran eta etorriko diren gidarien kalitatea kontutan izan da poztekoa da. Gainera eskerrak eman behar zaizkio bertako Udalari eta herriari lasterketa antolatzeko eman duen laguntzagatik.

**- Zuk Gorla ezagutzen duzu eta horrek Egozkuerekiko abantaila ematen al dizu?**

- Ez, ibibidea asfaltatu berria da eta Aitor Zabaletaren etxea da. Pantxo Egozkue ere moral aldetik ezin hobeto dabil eta gainera beraien artean dago jokoan Espainiako txapelketa. Nik hemen ez dut gehiegi arriskatuko, zeren nire asmoak Europako txapelketa irabaztean baitaude.




**40 urte. Kotxe mendi igoeretan 1975etik ari da. PALMARESA: Kotxeentzako Espainiako mendi igoera bi aldiz irabazi du eta Europa mailan lau txapelketa irabazi ditu. KOTXEA: Lola BMW, 405 zaldi eta 640 kg ditu. Aurtengo Europako txapelketan lortutako emaitzak: Andorran, Austrian eta St Ursanen (Suiza) lehen postua lortu du. Portugalen eta Jaizkibelen bigarren izan da.**

TUBOESKAPEAK:
% 25eko deskontua.
OLIO ALDAKETA momentuan
TXORNO
AUTORREKANBIOAK
Ibargarai, 33 behea

LARRAÑAGA
AUTOAK
SEAT Audi
☎ 76 18 38
BERGARA

ELORREGI
TAILERRAK, C.B.
San Juan, 1-A
4. moduloa.
56 postakutxatila - 20570
BERGARA ☎ 76 02 86
agria
ZERBITZUA



# PANTXO
# EGOZKUE

## "Diru aldetik galera asko izan ditut"

Momentu honetan Espainiako eta Europako txapelketan lehen postuan zaude, hori ikusirik Gorlan irabazteko faborito nagusia zara kiniela guztietan...

- Bai orain arte azkarrena izan naiz, baina hemen Aitorren etxean gaude eta azkar joango da. Mundu guztiak daki Vilariño ere gidari azkarra dela eta berari irabaztea oso zaila dela eta Luis Martinez ere ezin da ahaztu. Ni irabazten saiatuko naiz, baina ez da erraza izango.

**- Zu orain arte Europako txapelketan beti egon zara Vilariñoren atzean eta orain lidergoan zaude. Espero zenuen?**

- Aurreko bi urtetan txapeldun ordea izan naiz, baina ez nuen irabazteko hainako kotxerik eta aurten Europako txapelketa irabazteko pentsatu nuen derrigorrezkoa zela kotxe on bat eskuratzea eta Sponsorra izan ez arren nire dirutik kotxe on bat lortu dut eta hor daude emaitzak.

**- Sponsorrik ez izateak zer suposatzen du?**

- Diru aldetik galera asko izan ditut eta psikologikoki ere min asko egiten du. Zure burua gero eta zor gehiagorekin ikustea ez da batere erosoa, baina ikusi dut gidari azkarra naizela eta hori niretzat garrantzitsua da. kotxea ongi badoa Europako txapelduna izan naiteke.

**37 urte.**
**1976az geroztik kotxe mendi igoeretan.**
**PALMARESA: Espainiako mendi igoera txapelketa 3 aldiz irabazi ditu. Europako txapelketan 3. eta txapeldun ordea. Europako eta Espainiako txapelketan behin behineko liderra.**
**KOTXEA: Osella PA9 G90. 405 zaldi. 640kg.**
**Aurtengo Europako txapelketan lortutako emaitzak: Lehen postua Riettin (Italia), Txekoslobakian, Jaizkibelen eta Turckheimen (Frantzia).**




TALL. ASEGINOLAZA
Urteaga 37. Tfnoa eta faxa: 76 47 51. BERGARA.

TXISTU MOTOR
KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA
Volkswagen taldea
Aribar Poligonoa. San Juan auzoa ☎ 76 09 31 BERGARA

# Gorlako Igoerari buruzko zenbait datu:

## IGOEAREN EZAUGARRIAK

Irteera, Igeltseritza zaharra baino 100 bat metro beherago kokatuko da eta helmuga, berriz, Amezti baserria pasatu eta hurrengo errobueltaren ondoren, 50 metrotara.

Zirkuitoak, guztira, 5000 metrotako luzera du, batazbesteko malda, 7,8koa da eta malda gogorrena batazbeste 9koa. Irteeratik helmugara bitartean, 390 metro igotzen dira.

## EGITARAUA ETA ORDUTEGIA

**Larunbata:**

09:00: Parte hartuko duten kotxe eta gidari guztien ziurtapena, Seminarioko patioan.

13:00: parte hartuko duten kotxe eta gidarien zerrenda ofiziala argitaratzea.

14:30: Kotxeen aurkezpena irteera tokian.

15:00: Entrenamenduak.

**Igandea:**

09:00: Entrenamenduak.

10:00: Lehen manga ofiziala

12:00: Bigarren manga ofiziala.

14:00: Emaitzen aurkezpena.

18:00: Sari banaketa (615.000 pzta. banatuko dira) Seminarioko patioan

Esan dezagun, Azkoitirako bidea itxi egingo dela larunbatean arratsaldeko ordu 2etatik 7rak bitartean eta igandean goizeko 8etatik ordu 2ak arte. Proba ikusii nahi dutenek, bestalde, 400 pzta. ordaindu beharko dute entrenamenduak ikusteko eta 800 karrera egunean.

Bestalde, herri bazkaria ere antolatu da (bertan auto gidariak izango dira) eta joan nahi duenak 1.500 pzta ordaindu beharko du. Izen-ematea igande goizean egingo da.

## GORLAKO IGOERAREN PALMARESA

I. Edizioa: Pedro Roman.
2. Edizioa: Andres Vilariño.
3. Edizioa: Andres Vilariño.
4. Edizioa: Luis Martinez.
5. Edizioa: Andres Vilariño.
6. Edizioa: Rafael Bereinkua.

Lagun
GARAJEA
Autoen konponketa
Zubieta, 46
☎ 76 11 20
BERGARA

# BERTSO Jaialdia

AITOR SARRIEGI
ESTITXU AROZENA
IGOR ELORZA
ION MAIA
IRATXE IBARRA
JESUS MARI IRAZU

Gaijartzailea
AITOR SARASUA

Larunbata 11.
Gaueko 10.30ak.
MARIAREN
LAGUNDIA.

Sarrerak, aurrez 500 pzta takilan 700 pzta.

# TRIKITIXA Eskola

MATRIKULA ZABALIK

Matrikula epea irailaren 24ra arte

Prezioa:
Soinua: 2.500 pzta hileko
Panderoa: 1.800 pzta hileko

Izen ematea:
JARDUN ELKARTEA
Masterreka 13. ☎ 76 08 19

Antolatzailea:

Jardun

Laguntzaileak:

BERGARAKO UDALA
ETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

# Udako gauzarik atseginena eta aspergarriena?



**Joseba Arteaga**
**33 urte, langilea**

Atseginena herrian izan den giro trankila eta udako gauzarik txarrena Iglesias Zamoraren inguruan sortu den giroa.



**Josune Romaratezabala**
**39 urte, langilea**

Opor egunak izan dira egun atseginenak, baina Portugalera opor bidaia erabat aspergarria gertatu zait.



**Iñaki Olano**
**19 urte, ikaslea**

Gauzarik txarrena neskarik topatu ez dudala eta momentu atseginenak, ostera, inguruko herrietako jaietan pasa ditut.



**Aitziber Azkondo**
**20 urte, ikaslea**

Uda osoa egin zait atsegina, perfektoa izan da, batez ere Alcoceberren pasatako egunak eta han izan ditudan lagunak.


FS Foto Sistema — Albéniz

**ARGAZKIAK ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



ETXE-
-AUNDI

*Negozio bazkariak*
*Ezkontzak*
*Banketeak*

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

**CAMACHO**

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA




**ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

**INGELESA eta FRANTZESA**

MATRIKULA ZABALIK

KURTSO HASIERA: Irailak 28

- Maila guztiak
- Azterketen prestakuntza
- Ikastaro trinkoak
- Umeak, gazteak eta helduak





HIZKUNTZ ESKOLA BERGARA

**INFORMAZIOA:**
**Bergarako UNED**
**(3. pisua)**
**☎ 76 06 87**



## *Zela leike*

Inkesta bat ein ezkero Gipuzkuan jendiai galdezka ze egunkari erosten daben eta zeaitxik, sorpresa eta datu kurioso mordua jasoko giñuke.

Danerako gustuak eta disgustuak.

Kontua zera da, informaziñua ze dan, zetako balio daben eta zeiñek daukan hara ta hona, txuri ta beltz eguneroko berri-moldaketa horren ardura.

Ba gizon, eztok hainbesterako izango!

Gure inguruan daen periodikuen artian bada bat Urrezko Mazkorra eskuratzeko modukua: diarixua.

Benetan aztertzeko kontua da, kazetarixendako lan politta.

Zela leike Gipuzkuan gehixen saltzen dan periodikuak darabillen politika bertan daon banaketa politikoarekin bat ez etortzia.

Egixa esan, ezta oso erreza ulertzen.

Horren arrazoien artian bat behintzat garbi daola uste dot: jendiak eztau benetan diarixua irakurtzen. Kirolak, herrixetako kartak, eskelak eta beste kontu batzuk dira irakurtzen dienak.

Honek berez eztauka arazo haundirik, arazuak sortzen die eguneroko informaziñuan oso ideologia konkretu bat sartzen danian azpitik, oso modu subliminalian gaur eguneko komunikabidiak dauken indarra eta boteria erabiliz.

Eta hori jaun-andriok eztao ondo.

**Joxe Lazkano**



## *Chicas viejas*

Absurdo horietatik salbu bizi ginela uste nuen eta hara non entzuten dudan bizpahiru urte gelditzen zaizkidala printzea aurkitu eta ezkondu ahal izateko. Gero beranduegi izango bait da, bai umeak eukitzeko bai mutil dexenterik topatzeko, zeren eta, hau da larria, urteak pasa ala ogiapurra besterik ez da ezkongaien merkatuan... Zoritxarrez, iritziak badu oinarri sendorik -oraindik ere- gure artean, ahotan ez badarabilgu ere.

Gure gurasoen garaian, ezkontzen ez zen edonori arraro xamarra, kontentagaitza edota zatarra zenaren marka leporatzen zitzaion. Eta behin 40 urtetik gora (neskak, berriz, 30) mutil zahar bihurtu. Ez da hain erraz herri bati mende luzeek eman dioten pentsabidea aldatzen. Halere, geure herrietako bizikera nahasi honetan bizitza-lege zorrotz hori gaurko haizeek (libreagoek) astintzen dute bide berriak jorratuz.

Zorionaren atzetik gabiltza gehienok baina zorionaren osagaiak bakoitzak ditu baloratzen. Barrenak eskatzen dion legeaz, nork bere erara, modura eta moldera. Horrela, bada, maitearen bila dabilena eta oraindik aurkitu ez duena. Askok ordea aurkitu zutelakoan ezkondu eta ez kolorerik ez usairik ez duten elkarbizitzarekin topo! Beste zenbaitzu, sexu berekoak izaki, ezin. Eta ezkondu barik urtetan batera bizitzeaz gain umeak ere dituzten maitaleak, honek ere ¿chicos viejos?

Beraz, non daude mugak eta nork jartzen ditu mugarriak? Hemen, bestetan bezalaxe, badugu aldatzen hasteko ordua. Haizeak bestera garamatza

**Ainhoa Altuna**


ONENA
TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

BILBAO
ASEGURUAK
IÑIGO JUARISTI
Artekale, 18 b
Tfnoa eta faxa: 76 08 71 BERGARA





POL - POL TABERNA
Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA
Tfnoa: 76 01 51

Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

BERGARAKO BATXILERGO INSTITUTUA

*DATORREN 93/94 IKASTURTEAN IKASTETXE HONETAN* ***BBB*** *EDO* ***UBI*** *IKASKETAK BURUTU NAHI DITUZTEN IKASLEEI GOGORA ERAZTEN ZAIE MATRIKULA EPEA IRAILAREN 13ra ARTE IREKITA DAGOELA.*

BIZKOTXOAK ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Telefono. 761051

R.S.I 209374 SS

BERGARA

LAKET

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA



## ❑ 900 Km. oinez

**Donostiatik Cab de Creusera** (Girona) arteko distantzia oinez bete zuten **Xabier Lijo** eta **Iker Etxebarria** Pol-Pol taldeko kideek. Hasieran 35 bat egunetan egitea espero bazuten ere, 30 nahiko izan zitzaien. Beren esanetan, "Transpirenaika Trabesia (900 Km. inguru) gogorra da izatez baina psikolojikoki ondo ibili garenez, ez dugu arazo aipagarririk izan; hori bai, azken egunetan hankak oso minduta geneuzkan". Azken 13 egunetan **Xabier Larrañaga** eta **Mikel Alberdi** beren lagunak gehitu zitzaizkien espediziora eta *helmugara* heldu bezain laster guztiek buelta egin zuten... autobusez oraingoan. Jakin badakigu Iker eta Xabierrek izandako esperientziak jasotzen dituen eguneroko bat idatzi zutela. Horren esklusiba lortzeko ahalegina egingo du BERRIGARAk...



## ❑ Barnetegian

Astelehenean **San Martin de Agirre** eta **Mariaren Lagundia** ikastetxetako 31 lagunek Abaltzisketarako bidea hartu zuten. 8. maila B ereduan egin berri duten ikasle hauek 16 egunez han izango dira beren euskara maila hobetzeko asmoz, aurrerantzean beren ikasketak euskaraz jarraitu ahal izateko. Argazkian, **Abaltzisketako barnetegian** ageri dira. Euskara ikasteaz gain, lagunartean primeran pasako dute, ziur egon. Bueltara arte!!

IBARGUREN PENTSUAK

***Biona*** **pentsuen biltegia.**

***Bioter*** **produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA



## Dantzari bikainak

Bergarako dantzariak primeran portatu dira abuztuan izandako lehiaketa ezberdinetan. **Eduardo Muruamendiaraz** eta **Amaia Agirrek** osatutako bikoteak abuztuaren 10ean Donostiako Dantza solteko txapelketa irabazi zuen. Horrez gain, Zarautzeko Euskal Jaian eta pasa den astelehenean Hondarribin ere txapeldun izan genituen bikoteka eta, era berean, Edu 3. sailkatu zen Zarautzeko aurresku txapelketan. **Amaia Lazkano eta Aitor Aranburu** gaztetxoak (argazkian), berriz, Gasteizen lehenak izan ziren 16 urtetik beherakoen artean, Amaran Vasco-Navarrako txapeldunak, Zarautzen hirugarren eta Hondarribin berriz ere irabazle. Zorionak!!



## Guinnessean

**Iñigo Martinez, Mikel Ibarzabal, Andoni Arroyo** eta **Izaro Aperribai Kukuma** taldeko kideak Lekeitioko Aitaita Txiki hankapaluko beste 12 lagunekin batera 25 orduz hankapalutan ibili ziren (aurreko marka 24tan zegoen katalan batzuren esku) notario aurrean abuztuaren 13tik 14ra. Datozen hilabetetan beste ausartiren batzuk ez baleude, Guinnessera pasako lirateke. Zorionak!!

## Zertan dihardute ba?

### JOSE MARIA EGUREN



Azken 15 urteetan San Pedroko parrokoa izan den 62 urteko bergarar hau Ordiziara destinatu du Jose Maria Setien Gipuzkoako Gotzaiak. Fidel Eizagirre zarauztarrak ordezkatuko du.

### ANDUEZA/LASKURAIN



Irailaren 25ean ETBko lehen katean estreinatuko den *Hor dago koxka* lehiaketan Jon Andueza BERRIGARAko kazetari ohia aurkezle eta Mikel Laskurain bergararra aktore lanetan izango ditugu.

ESPOLON
School of English
BERGARA
Ibargararai, 31
☎ 76 03 53

**93/94 IKASTURTEA. MATRIKULA ZABALIK.**

**IKASLE ZAHAR eta BERRIENTZAKO IKASTAROAK.**
- **Haur, gazte eta helduentzat .**
- **Enpresataroko ikastaro bereziak.**
- **Goiz eta arratsaldez.**

ORDUTEGIA: **10:00-12:30** eta **16:00-19:00.**

**KURTSO HASIERA: URRIAK 4**

Ziripot
**Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41**

# Umore giroan

### Expedisiñuak eta entierruak

Don Antonio Azpiri abadia eleiza aurrian zeguan. Onetan, Bistalegre kaletik bera, Alfako biargiñak bazaroiazen kajak -entierruetakuen itxurakuak- bizkarrian, estaziñoruntz. Don Antonio, -uleartzaillia iñor ba zan-, urreratu jakuen eta:

- Ze mutillak, entierruak ala?

Alfatarrak:

- Entierruak ez, espediziñuak!

Andik egun batzuetara, Eibarren egun berian iru entierro izatea gertatu zan.

Urreratu ziran gure alfatarrak Don Antoniogana eta esate detse:

- Zer, Don Antonio, espedisiñuak?
- Ez, entierruak!

### Eibarko kazarixa

Bazan Eibarren kazari bat bere andriari i eitxen zetsana eta txakurrari zu. Andriak, naigabez beteta, esan zetsan egun baten:

- Eztao deretxorik, zuk, txakurra ni baiño geixago maitxe dozu.

Eta gizonak:

- Geixago ez; igual!!

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK




Arantza Larrañaga, orain dela 20 urteko argazkian.

### LARUNBATEAN IZAN ZEN SAN MARTIN JAIETAKO ERREGINAREN AUKERAKETA

Joan zen larunbatean, "Los Mansos" orkestak eta Iñaki Arriaran bere kantariak alaitutako dantzaldiaren barruan, izan zen Udal Pelotalekuan 1973ko San Martin jaietarako erreginaren aukeraketa. Jaialdiaren antolatzailea Umore-Ona elkartea izan zen eta frontoia leporaino bete zen aurtengo San Martinetako erregina zein izango zen jakiteko irrikaz. Izan ere, sarrerak benetan egokiak ziren: 60 pzta. gizonezkoentzat eta 40 emakumezkoentzat.

Hamazazpi elkartek aurkeztu zitzuten beren hautagaiak eta hamabost minutu luzeren buruan eman zen aditzera mikrofonoetatik aurtengo erreginaren izena. Titulua Pol-Pol Mendizale Elkarteko ordezkari aurkezu zen Arantza Larrañaga Osintxuko neska morenari egokitu zitzaion. Bera izango da aurtengo San Martinetako danborrada eta 1974an herrian izan daitezen ekitaldi nagusiak presidituko dituena.

**J. Bikuña. 1973-IX-4.**
**La Voz de España.**


GOIERRI
**Autogidarien eskola**
Fraiskozuri Enparantza 5 Tfnoa: 76 41 50 BERGARA

ARRANO
**Taberna**
Kruz Gallastegi BERGARA

IXUKUN
**BEREZITASUNAK**
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

**INFERNUKUA TABERNA**
Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



# GALDE DEBALDE

## PILI KORTAZAR

**Xakobeoarekin zerrikusia duen eta hilaren 25ean, Santiago egunean, jaiak ospatu zituen auzoa Basalgo da. Horixe, azken Galde Debaldeko erantzun zuzena.**

**PILI KORTAZARrek erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, ZUMLAGA JATETXEAk emandako saria.**
**ZORIONAK !!**
**Eta besteok segi asmatzen! Animo!!**

HERRAN ETXEA

**Sukaldeko altzariak**
Matxiategi, 4. 76 37 53

**Elektragailuak, TB, bideoak, HIFI aparailuak.**
Matxiategi, 3. 76 12 22

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24 , Tfnoa: 76 10 16



PILI KORTAZARrek jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAk emandako saria.

ARGAZKI
Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Oporretatik itzultzerakoan herriko etxe dotore eta zaharrenetariko bat izan da notizia. Udaletxe berria eraikitzeko lanak direla eta alboan dagoen Olaso dorretxea zentimetro bat hondoratu, teilatuan hasi eta lurrerainoko brintzara nabarmen ikus daitekelarik. Dorretxe bikain hau XV. mendearen bukaerakoa edo XVI.aren hasierakoa da eta mendeetan zehar Olaso-dorre izenaz gain beste izen batez ere ezagutu izan da.

**Zein beste izenez ezagutu izan da Olaso dorretxea?**

______________________________________

izena ________ abizena ________ telefonoa ________

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

## Beñat Aiastui txapeldun

Beñat Aiastui Lokatza Sumofic taldeko txirrindulariak jubenilentzako Liernira igoera irabazi zuen igandean. Lineako proban lehena izan zen eta erlojuaren kontra seigarren. Aitor Larrea bere taldekidea seigarren postuan sailkatu zen.

## Kirol ihardueak

Udal Kirol Zerbitzuak kirol ihardueak antolatu ditu 16 urtetik gorakoentzako. mantenimendu gimnasia, aerobik edota ur iharduueren eskolak jaso nahi dituztenek Kirol Zerbitzura jo dezakete.

# JAVI GARMENDIA: "Aurten ia saskibaloi barik geratu gara"

**Aurtengo denboraldian Bergarako saskibaloi sailak ez du ez emakumezkoen ezta gizonezkoen talde nagusirik aterako. Javi Garmendia sekzioko arduradunak herriko saskibaloiak egun bizi duen egoera argitu digu.**



**- Zer gertatu da talde nagusirik ez izateko?**

- Emakumezkoen taldea ez zen gure asmotan sartzen entrenadorerik ez zegoelako eta nesken partetik ere interes gutxi ikusten genuelako. Mutilena bai, baina zenbait jokalarik saskibaloia utzi eta Anjel Iñarrak Arrasaterekin fitxatu ondoren, jokalari altu barik geratu ginen eta horrela ezinezkoa zen.

**- Aurreko denboraldia kirol zein ekonomiko aldetik ondo irten zitzaizuen...**

- Bai, kirol mailan gizonen entrenadorearen dimisioa kenduta dena ondo irten zen. Ekonomikoki, aurrekontua 1.800.000 pta.koa zen: guk geuk 1.300.000 pta. jaso genuen eta gainontzekoa Bergara K.E.k eman zigun.

**- Taldearen zuzendaritza eramaten duzuenok ere uzteko asmoa duzue.**

- Horrela da, ez dago erreleborik. 7 urte daramagu berdinak lanean, denetik egiten eta azkenean kantsatu egiten zara. Gainera ikusten duzunean saskibaloian jokatu duen jendeak kirola utzi ondoren ez duela laguntzen ba desanimatu egiten zara. Datorren urtean kolaboratzeko bai, baina ez sekzioaren ardura eramateko.

**- Aurten beraz lan lasaiagoa...**

- Bai. Jubenil mutilak, kadete neskak eta eskolarrak izango dira. Esperantza dugu talde horiengan: kadete neskak ondo ibiliko dira hurrengo urtean eta ordurako eskolarrak ere kadete bihurtuko dira. Urrian hasiko dute denboraldia.

# Futbito txapelketa hastear

Egun gutxi barru martxan jarriko da Bergara K.E.k antolatzen duen futbito txapelketaren VI. edizioa. Asteartean Kultur Etxean izandako bileran taldetako delegatuei txapelketaren zehetasunak jakin arazi zitzaien. Nobedade gisa, aurten 5 jokalari eta atezaina (iaz 7) aterako dira zelaira eta joan den urtean bezala, lehen eta bigarren maila izango dira (40 talde inguru denera) eta partiduak astebukaeran jokatuko dira Kiroldegian. Talde bakoitzak 3.000 pta. ordaindu beharko ditu. Iazko txapeldunak Eusebio II ligan (argazkian) eta Toki-Eder kopan izan ziren.



GURIA
Bidekurutzeta 5,
Tfnoa: 76 20 34

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

OILAGORRA
Taberna
Barrenkale 21, BERGARA



# *Jesus Madariaga Dominikuaren lehen meza auzoan*

Jesus Madariaga Ozaetako semea da, dominikua, orain Texasen dagoena. Honako argazki hau, 1955koa, Altos Hornosen lehenengo meza eman zuenekoa da eta bertan auzoko lagunek inguratuta agertzen zaigu. Eta argazki hau kaleratu orduko ziurrena horietako mordoxkaren bat berriz agurtzeko aukera ere izango zuen oraingo eguaztenean Bergarara etortzekoa zen eta. Ondo etorri!

Hara, bada, zeintzuk diren bere inguruan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Aurrean, makurtuta:** Felix Pardina, Jose M. Luarizaristi, Jose M. Solaun eta Angel Madariaga.

**Erdi makurtuta:** Pepe Loizaga eta Martin Juaristi.

**Zutik erdiko ilaran:** Karmelo Lazkano, Karmelo Mendibil, Migel Moñux, Jabier Fernandez de Arroiabe, Jose Luis Garmendia, Kandido Urriategi, Pako Juaristi, Jesus Madariaga (Dominikua), Angel Mendibil, Bittor Gallastegi, Jose Iturbe eta Bixente Camacho.

**Goian:** Pako Gabilondo, Sabin Madariaga, Jose M. Markoida, Gregorio Lazkano, Jose M. Lazkano eta Bixente Madariaga.

**Umeak:** Gantxegi (neska) eta Elgero (mutikoa).

***Estepan Plazaola***
***Argazkiak: Pako Gabilondo***

ETXALAR
KRUASANTEGIA
Gosariak eta meriendak
Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

AGIRREBEÑA
Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria
Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta Mutil
Irizar 3 Tfnoa: 76 16 54
Ibargarai 8 Tfnoa: 76 54 73

## ETXEBIZITZA

**Garajea** hartuko nuke alokairuan **Tokiederren** edota **Espoloian** ☎ 76 52 45.

**Pisu amueblatua** alokatzen da herri erdian. ☎ 76 19 29.

**Pisua** hartuko nuke **alokairuan.** ☎ 76 83 50.

**Pisua salgai** San Lorentzo 1ean. ☎ 76 27 35.

**Pisua alokatu** nahi dut ☎ 76 07 21.

**Etxea hartuko genuke alokairuan.** ☎ 21 34 60.

## DENETARIK

**Paseorako bizikleta** (bolero) **salgai**. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

**SEAT ibiza** bat **salgai.** 3 urte, 34.000 km. ☎ 76 35 14.

**ZEUS** errepideko **bizikleta salgai**. 56 neurrikoa, pintatu berria. Gurbil berriak. 69.500 pzta.. ☎ 76 11 21.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Master System II** kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

**Karabana bat salgai.** Ia berria. ☎ 77 04 98.

Kaminoko **bizikleta** bat **erosiko** nuke. ☎ 76 18 78.

**SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai.** ☎ 76 50 67.

Pastor-aleman **txakurkumak salgai.** ☎ 76 55 29.

**Argazki makina salgai:** Nikon AF-601, 35-70 objetiboduna. ☎ 76 00 62.

**Kanpin denda** haundia **salgai**. 45.000 pzta. ☎ 76 26 73.

**Kitarra klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

**Trialeko motorra salgai.** Merlin 350 zk.☎ 76 07 04.

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

**Lagunak nahi ditut** astebukaeretan irtetzeko. (30 urte). ☎ 76 17 85.

**Opel Cadet 1800 i kotxea salgai (SS-AK)** ☎ 76 45 81.

Bigarren eskuko **bizikleta estatiko** bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Transformatutako **Vanette furgoneta salgai.** Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti. ☎ 79 28 81.

TV GAME 2.600 **bideo kontsola salgai**: 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta. ☎ 76 54 12 / 76 13 14.

**3 berogailu salgai:** keroseno, butanozkoa eta elektrikoa. ☎ 78 05 72.

**OPEL CORSA City, BI-AK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

**Doberman** arrazako **txakur emea salgai. 40.000** pzta. ☎ 76 57 67.

**Ilea eta bizarra** moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

**Renault Super 5** kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

## LANA

**Umeak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 03 72.

**OHO**ko klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 59.

**Etxeko lanak** egin edota **umeak zainduko** nituzke. ☎ 76 17 85.

**Etxeak garbitu** edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Euskarazko klaseak** ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

**Ingelesezko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**OHO** eta **BBB**ko **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 42 08 (Nerea).

**Ingelesezko klaseak** ema ten ditut. ☎ 76 31 36.

## Hildakoak

*Adelaida Iturrospe Mujika*
irailak 6, 85 urte

## Jaiotakoak

*Eva Pereira Poza*
irailak 6

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak
Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara
ANGIOZAR ☎ 76 55 70

BOLINTXO
Kirola egiteko behar den guztia
Ibargarai 10,
☎ 76 38 32


ORAIN
ARRASATEN
UNITED COLO
OF BENETTO
Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tfnoa. 79 50 78 ARRASATE